

JATSUN ZER BERRI



LA VIE DE JATXOU



Bulletin d'informations municipales n° 29
Herriko berriak

avril 2022 / 2022ko apirila

LE MOT DU MAIRE

Chers Jatsuar,

Comme chaque année je profite de ce bulletin pour vous faire un retour sur l'année 2021, notre seconde année de mandat et vous parler de nos projets pour l'année à venir. L'année 2021 restera malheureusement sous le signe de la COVID19. Cette pandémie qui nous a apporté son lot de difficultés avec l'enchaînement de différents protocoles concernant notamment l'école. Je tiens cette année encore à remercier l'engagement sans faille de notre personnel, des enseignants ainsi que des élus qui ont tous permis que les enfants soient accueillis dans les meilleures conditions possibles.

En ce qui concerne notre budget, vous trouverez le détail dans les pages suivantes mais je peux déjà vous dire que cette année, comme les précédentes, notre budget a été tenu et bouclé avec un excédent pour la partie fonctionnement. En ce qui concerne la partie investissement, nous avons pu réaliser un certain nombre de projets comme par exemple la réfection de la chaussée Beleburuko bidea, tous les portails de l'école ou encore la signalisation horizontale sur les routes de la commune. Particularité de ce dernier chantier, afin de limiter son coût, nous avons fait le choix de le réaliser en mutualisant les agents techniques des communes d'Halsou et de Jatxou.

Durant cette année 2022, toute l'équipe municipale continuera à travailler sur nos projets comme l'entretien de la voirie, la réouverture de chemins de randonnées, la création d'un site internet de la commune, l'amélioration de notre cadre de vie avec par exemple un aménagement supplémentaire dans l'aire de jeux.

Je veux croire que cette nouvelle année sera celle de la fin de la pandémie et que nous pourrons tous retrouver une vie normale dans notre commune, que nous pourrons enfin célébrer les fêtes du village ainsi que participer à tous les bons moments qui font de Jatxou une commune où il fait bon vivre.

AUPA JATSU

Marc LABEGUERIE, Maire de Jatxou

AUZAPEZAREN HITZA

Jatsuar maiteak,

Urte oroz bezala, aldizkari hau baliatzen dut, gure kargualdiko bigarrena den 2021 urteari behako bat emateko bai eta heldu denari begira, gure xedeak plazaratzeko. Zoritxarrez, 2021 urtea Covid19ari lotua geldituko da. Izurrite horrek bere zailtasun sorta ekarri dauku, bereziki eskola arloan, protokolo desberdinak bermatzeko. Beraz aurten ere, nahi dut gure langile, erakasle eta hautetsien hutsik gabeko engaiamendua eskertu, haurren harrera ahal bezain ona eskaini baitute.

Aurrekontuari dagokionez, xehetasunak ondoko orrialdetan aurkituko dituzue, bainan oraindanik erraiten ahal dizuet, beste urteetan bezala aurten ere, gure buxeta atxiki dugula eta soberakin batekin bururatu funtzionamendu partea. Inbestimendu sailean, xede hauek gauzatu ahal izan ditugu, adibidez Beleburuko bidearen eraberritzea, eskolako xeilen aldatzea edota herriko bide guzietan, lurreko seinaleetika berriz tindatzea, beharrez gehitzea. Azken obra hau kudeatzeko, eta gastuen apaltzeko, Haltsuko eta Jatsuko herriko langileek betan lan egitea hautatu dugu.

2022urtean zehar, herriko etxeko talde osoak gure proiektuak bidean emaiten segituko du, hala nola bideak eraberritzen jarraituz, oinezko ibilaldi xendrak berriz zabalduz, herriaren webgunea sortuz, gure bizi ingurumena hobetuz, jostalekuan hornidura berri bat ezarritz.

Urte berri honek izurritearen bukaera ikusiko duela sinetsi nahi nuke, gure bizia normaltasun batetara itzul dadin, gisa hortan ere herriko bestak ospatzen ahalko ditugula, bai eta gainerateko mementu goxo ainitz, horretarako baita atsegingarri Jatsun bizitzea.

AUPA JATSU

Marc LABEGUERIE, Jatsuko auzapeza

18 février 2022 : nomination de Mr Alain CASTAING, Maire de Jatxou de 1983 à 2020, au titre de Maire Honoraire de la Commune.

L'écharpe tricolore de Maire Honoraire, brodée à son nom, lui a été remise par Mr le Maire en présence de nombreux conseillers municipaux de Jatxou d'hier et d'aujourd'hui réunis pour cette manifestation officielle, mais aussi très amicale.

2022ko otsailaren 18an : 1983tik 2020 arte Jatsuko auzapez egona den Alain Castaing-en izendatzea, Herriko Ohorezko Auzapez gisa.

Hiru koloretako eta bere izenean brodatutik, Ohorezko Auzapezaren xarpa eskaini dio Auzapez Jaunak, atzoko eta gaurko herriko kontseilari andana baten aitzinean, ekitaldi ofizial bezain adiskidetsu batean.




PRÉSENTATION SIMPLIFIÉE DU BUDGET DE FONCTIONNEMENT DE LA COMMUNE POUR L'ANNÉE 2021

L'année 2021 s'est malheureusement déroulée sous le signe de la COVID19 toujours présente. Cela a eu pour effet direct d'avoir des recettes en baisse, notamment sur les locations du trinquet et de la salle polyvalente. Les dépenses de fonctionnement ont augmenté sur cette même période, augmentation due pour partie aux différents protocoles COVID19, à l'évolution des prix des énergies, aux remplacements des personnels victimes de la pandémie. Malgré cela, notre gestion rigoureuse aura permis d'équilibrer ce budget tout en dégagant un excédent de fonctionnement qui sera en partie versé au budget d'investissement 2022 pour nous aider à réaliser nos projets.

Compte tenu de l'inconnue que représente l'évolution de la situation sanitaire en 2022, nous conserverons une partie de cet excédent en fonctionnement pour faire face si nécessaire à des besoins particuliers.

Recettes de fonctionnement

Recettes	Réalisé
Excédent de fonctionnement reporté de 2020	35 645,07
Dotations, subventions	168 183,10
Produits d'exploitation	109 715,88
Impôts et taxes	280 814,39
TOTAL RECETTES	594 358,44 €



Dépenses de fonctionnement

Dépenses	Réalisé
Charges à caractère général	151 903,76
Charges de personnel et frais assimilés	241 971,35
Autres charges de gestion courante	121 671,51
TOTAL DEPENSES	515 546,62 €

2021 URTEKO HERRIAREN FUNTZIONAMENDU AURREKONTUAREN AURKEZPEN SINPLIFIKATUA

2021. urtea, zoritxarrez, COVID19 delakoaren pean bizitu dugu eta oraindik ere hemen dugu. Horrek diru sartzeak murriztu dizkigu, batez ere trinketaren eta balioanitzeko gelaren alokatzeetan. Aldi berean, funtzionamendu gastuak emendatu zaizkigu, zerbait COVID 19 protokoloengatik eta beste zerbait energien prezioen emendatzeagatik eta pandemiak jorik ziren langileen ordezkapenengatik. Hala eta guziz ere, kudeaketa zorrotza egin eta aurrekontua orekatu ahal ukan dugu eta funtzionamendu soberakina egin; horren zati bat 2022ko inbestimendu aurrekontura sartuko dugu gure proiektuak egin ahal ukan ditzagun.

2022an osasun egoeraren bilakaerak ekar diezagukeenaren zalantza kontuan hartuz, soberakin horren zati bat funtzionamendurako utziko dugu, behar berezirik balitz horri aitzin egin ahal ukan dezagun.



INFORMATIONS SUR LES DÉPENSES D'INVESTISSEMENT 2021


2021-KO INBESTIZAMENDU GASTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Les dépenses d'investissement pour l'année 2021 sont de 110.605 €. Elles correspondent principalement aux éléments suivants / 2021eko inbestimendu gastuak 110.605 €koak dira. Honako elementu hauei dagozkien gastu horiek :

- Remboursement de la dette / Zoraren itzultzea : 36 230 €
- Travaux de voirie / Bidelanak : 36 638 €
- Portails école / Eskolako portalea : 4 829 €
- Rénovation appartement Bakea / Bakea apartamenduaren arraberritzea : 8 027 €
- Informatique école / Eskolako informatika : 4 308 €
- Filet trinquet / Trinketeko sarea : 4 737 €
- Analyse préparatoire à la 2^{ème} tranche des travaux de l'église (peintures plafond) / Elizako lanen 2. zatiren prestatzeko azterketa (soailu tindatzeak) : 7 260 €

Les recettes d'investissement pour l'année 2021 sont de 162 201 €. Elles se composent entre autres de / 2021ko inbestimendu diru sartzeak 162 201 €koak dira. Honako elementu hauek dituzte, besteak beste :

- Excédent d'investissement 2020 reporté / 2020ko inbestimendu soberakinaren ekarpena : 42 444 €
- Excédent de fonctionnement 2020 viré à la section d'investissement / Inbestimendu atalera igorri 2020ko funtzionamendu soberakina : 48 000 €
- Taxe d'aménagement / Antolaketa zerga : 4 761 €
- Remboursement de TVA / BEZaren itzultzea : 17 865 €
- Subventions / Dirulaguntzak : 7 648 €



L'excédent d'investissement de 51 596 € permettra de couvrir une partie des investissements à venir. Inbestimendu soberakina 51 596 €koa da eta egiteko ditugun inbestimenduen zati bat ordaintzeko erabiliko dugu.


TRAVAUX // LANAK



Réfection de la signalisation au sol de la voirie communale : Elle a été réalisée par notre agent technique, appuyé par l'agent technique de Halsou dans le cadre d'échanges entre nos deux communes. De nouveaux passages piétons ont aussi été matérialisés sur des lieux sensibles et plusieurs panneaux « stop » ont été ajoutés pour la sécurité de tous.

Herriko bideen lurreko seinaletikaren berregitea: Gure teknikariak egin du, Halsuko teknikariaren laguntzarekin, gure bi herrien arteko elkarlaguntzaren karietara. Oinezko pasabide berriak seinalatu ditugu leku arriskutsuetan eta hainbat «stop» taula gehitu ditugu ere ororen segurtasunerako.

Pose d'un nouveau filet au plafond du trinquet.



Sare berri bat eman dugu trinketeko soailuan.



Réfection de la voirie Belebuko bidea : pose d'un nouveau revêtement et aménagement de zones de croisement des véhicules.

Belebuko bidearen arraberritzea: estaldura berriaren ematea eta ibilgailuen gurutzatze guneen antolaketa.



De nouveaux portails ont été installés pour la sécurisation de la cour de l'école.

Portale berriak ezarriak izan dira eskolako jostalekua segurtatzeko.



La chapelle Saint-Sauveur a malheureusement fait l'objet récemment de plusieurs effractions. Suite aux recommandations de Mme la Conservatrice de la Direction Régionale des Affaires Culturelles, la serrure cassée de la porte d'entrée a été réparée et une autre serrure a été ajoutée.

Salbatore kaperan hauste zenbait gertatu dira, zoritxarrez. Kultura gaien Eskualde Zuzendaritzako Andere Kontserbatzaileak gomendatu eta sargiako atearen zerrapo hautsia erreparatu du eta beste zerrapo bat gehitua izan da.



Un panneau-plan de Jatxu a été installé devant la mairie facilitant la localisation des différentes voies, services et sites remarquables de la Commune.

Jatsuren planoa dakarren taula bat ezarria izan da Herriko Etxe aitzinean, herriko bideak, zerbitzuak eta leku aipagarrienak aiseago atzemateko.



Achats de différents ouvrages en Français et en Basque pour la bibliothèque de l'école dans le cadre du Plan de relance.

Hainbat frantsesezko eta euskarazko liburu erosiak izan dira, sustatze planaren kariatara.

Le **Centre Communal d'Action Sociale** (CCAS) a pour mission d'apporter aide et accompagnement aux personnes âgées, aux personnes handicapées, aux enfants, jeunes et familles en difficultés dans le respect de la confidentialité. Il a un rôle de prévention et de développement social dans la commune.

Nous sommes à votre disposition sur rendez-vous au 05.59.93.00.40.

Gizarte Ekintzako Udal Zentroaren (GEUZ) helburua da adineko pertsonen, desgaitasuna duten pertsonen, haurrei, gazteei eta zailtasunetan dauden familiei laguntza eta sustengua ekartzea, betiere pertsona horien konfidentzialtasuna errespetatuz. Prebentzio eta gizarte garapeneko eginkizunak betetzen ditu herrian.

Zuen zerbitzuko gaude, hitzordua hartuz ondoko telefono zenbakian: 05.59.93.00.40.

ACTIONS MENÉES EN 2021

Colis de Noël : comme chaque année, les membres du CCAS ont distribué à nos aînés, des colis de Noël gourmands composés de produits locaux.

Malheureusement, en raison du contexte sanitaire du début janvier, nous n'avons pas pu organiser la **galette des rois**.

Actualisation du registre des personnes vulnérables tenu en mairie : il permet d'activer une veille sociale et sanitaire en cas d'événements exceptionnels (canicule, grand froid, pandémie,...) auprès des personnes inscrites.

Cette inscription confidentielle est une démarche volontaire et peut se faire à tout moment auprès de la mairie sur rendez-vous au 05.59.93.00.40.

Domiciliation : le CCAS a également pour mission de procéder à la domiciliation de personnes sans domicile stable suivant une procédure bien définie. La demande doit s'appuyer sur un lien avec la commune, familial ou professionnel. Cela permet à la personne de disposer d'une adresse administrative et d'entreprendre diverses démarches. Plusieurs personnes ont été concernées en 2021.

2021AN GAUZATUAK

Eguberriko paketeak: urtero bezala, GEUZaren kideek tokiko produktu gormantez osaturiko paketeak banatu dizkiete adinekoei eguberriaren kariatara. Zoritzarrez, urtarril hastapeneko osagarri egoeraren ondorioz, **errege bixkotxaren** ospakizuna ezin izan genuen antolatu.

Herriko Etxean dagoen pertsona ahulen erregistroaren eguneratzea: ezohiko gertakariren bat (beroaldia, hotz handia, pandemia...) gertatuz gero, zerrendan direnen gizarte eta osasun zaintza bat antolatzeke aukera ematen digu.

Izen emate hori isilpekoa da eta nahiaren arabera; noiznahi egin liteke herriko etxean hitzordua hartuz hemen: 05.59.93.00.40.

Helbideratzea: GEUZak bizileku egonkorra ez dutenei prozedura zehatz batez helbidea emateko zeregina du ere. Eskaria herriarekin, familia-, edota lanbide-harreman bat izatean behar da oinarritu. Horrek, helbide administratibo baten ukaiteko eta zenbait urraspide egiteko aukera ematen dio pertsonari. Hainbat pertsonen zerbitzu horren probetxua ukan zuten 2021ean.

INFORMATIONS POUR LES SENIORS

• Portage de repas à domicile :

Ce service est proposé par l'Association Notre Dame. Renseignements : 05.59.93.00.70

• Eliza-Hegi :

Les personnes âgées de la Commune de Jatxou ont accès à des prestations et à des activités proposées la Résidence Eliza-Hegi à Ustaritz. Pour bénéficier de ces prestations, une inscription préalable à l'accueil de la Résidence Eliza-Hegi est nécessaire.

• Centre de Ressource en matière de gérontologie sur le territoire Errobi :

S'adresse aux personnes âgées et à leurs aidants. Pour tous renseignements : 05.59.29.39.70 ou par mail : cressources.contact.arditeya@gmail.com

INFORMAZIOAK ADINEKOENTZAT

• Etxez-etxeko apairu banaketa:

Zerbitzu hori Notre Dame elkarteak proposatzen du. Argibideak: 05.59.93.00.70

• Eliza-Hegi :

Jatsuko adinekoek, Uztaritzeko Eliza-Hegi egoitzak proposatzen dituen zerbitzu eta jarduerak erabil ditzakete. Zerbitzu horiek baliatzeko, izena aitzinetik eman behar da Eliza-Hegi egoitzaren harlekuan.

• Errobi eremuko gerontologia baliabideen zentroa:

Adinekoentzat eta haien laguntzaileentzat da. Argibideak: 05.59.29.39.70 edo e-mezuz: cressources.contact.arditeya@gmail.com

Faute d'avoir pu fêter les rois en début d'année, une surprise attend les aînés du village le samedi 18 juin prochain. Nous reviendrons vers vous rapidement. / Ezin izan gintuen erregeak ospatu urte hastapenean, hitzordua herriko adinduneri emaiten diegu ekainaren 18an udari ongi etorria egiteko. Xehetasunak laster.



CENTRE COMMUNAL D'ACTION SOCIALE

FRANCE SERVICES

Vous avez besoin d'aide pour vos démarches administratives ? France Services est un guichet unique qui donne accès dans un seul et même lieu aux principaux organismes de services publics : le ministère de l'Intérieur, le ministère de la Justice, les Finances publiques, Pôle emploi, l'Assurance retraite, l'Assurance maladie, la CAF, la MSA et la Poste.

Des agents formés vous accueillent, vous guident ; vous avez également accès à des postes informatiques en libre-service.

Pour notre territoire, la maison France Services labellisée par l'Etat est située à la Poste d'Espelette :

05.59.93.91.78

www.cohesion-territoires.gouv.fr/france-services

espelette@france-services.gouv.fr

AIDANTS CONNECT

Vous êtes démuni pour réaliser des démarches en ligne et n'êtes pas en capacité de les faire seul ?

Un agent, Aidants Connect professionnel habilité, présent au secrétariat de la Mairie de Jatxou, réalisera pour vous la démarche de façon légale et sécurisée après avoir signé au préalable avec vous un mandat de délégation.

Par la suite elle pourra vous accompagner ou vous orienter pour vous familiariser avec les outils numériques.

ELIOZ

Dans les prochaines semaines, la mairie sera équipée de la solution ElioZ : plateforme d'accessibilité téléphonique et physique pour les personnes sourdes et malentendantes.

Cela permet les échanges téléphoniques ou l'accueil physique en face à face grâce à une mise en relation instantanée avec un interprète. www.elioz.fr

POINT INFORMATION JEUNESSE

L'Info Jeunes d'Ustaritz est une structure publique située à Ustaritz, bâtiment Mailiarena. Elle assure l'accueil et l'information des jeunes de 12 à 29 ans. Cet accueil se veut gratuit et modulé suivant la demande, dans le respect de l'anonymat. Vous trouverez des informations sur la vie pratique (logement, santé, vie quotidienne), sur l'emploi, le BAFA, les jobs, les stages, les départs à l'étranger, l'orientation scolaire, les formations, les métiers, les loisirs, le sport et les vacances.

Pour avoir des renseignements ou prendre un rendez-vous : Tél. 06.26.81.77.31 ou par mail : pjj@ustaritz.fr



GIZARTE EKINTZAKO UDAL ZENTROA

FRANCE SERVICES

Laguntza beharrik ba ote duzu zure desmartxa administrazioentzat? France Services, leihatil bakarreko zerbitzu bat da; leku bakar horretan ondoko zerbitzu publikoen erakunde nagusietara jo dezakezu: Barne Ministerioa, Justizia Ministerioa, Finantza Publikoak, Pôle emploi lanbide zerbitzua, Erretreta Asurantz, Eritasun Asurantz, Familia Laguntza Kutxa, Laborarien Gizarte Mutualitatea eta Posta.

Gisa hortara formatuak izan diren langileek hartu eta gidatuko zaituzte; informatika postuak balia ditzakezu ere, zerbitzu librean.

Gure lurraldean, Estatuak labelizatu duen France Services etxea Ezpeletako posta bulegoan kokatua da: 05.59.93.91.78

www.cohesion-territoires.gouv.fr/france-services

espelette@france-services.gouv.fr

AIDANTS CONNECT

Urraspideak linearen bidez egiteko ez zira trebe eta ezin dituzu zuhaurk egin?

Jatsuko Herriko Etxean den Aidants Connect baimena duen profesional batek eginen dizu urraspidea legez eta segurki, zurekin esku emate agindua sinatu ondoren.

Ondotik, erakutsiko dizu tresna numerikoak erabiltzen eta urrats administrazioak nola egin.

ELIOZ

Heldu diren asteetan, ElioZ sistema ezarriko dute Herriko Etxean: telefono bidez eta fisikoki harrera egiteko plataforma, gaizki entzuten dutenentzat.

Horrek telefonoz mintzatzeko edo harrera fisikoki buruz-buru egiteko aukera ematen du, interprete batekin aldi berean lotuz. www.elioz.fr

GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Uztaritzeko Gazte Informazioa egitura publiko bat da; Uztaritzeko Mailiarena eraikinean kokatua da. 12 eta 29 urte arteko gazteen harrera eta informazioa eskaintzen du. Harrera hau urrik da eta eskaeraren arabera, beti ere anonimotasuna zainduz. Bizitza praktikoari buruzko informazioak atzemanen dituzu (bizitegia, osasuna, eguneroko bizitza), bai eta lanari buruz, Animatzaile Izateko Gaitasun Agiriari buruz, lanei buruz, egonaldiari buruz, atzerriarako bidaiari buruz, eskola orientabideari buruz, formakuntzei buruz, lanbideei buruz, aisialdiei buruz, kirolei eta oporrei buruz.

Argibideak biltzeko edo hitzordu bat hartzeko: Tel. 06.26.81.77.31 edo e-postaz: pjj@ustaritz.fr

VIE DE L'ÉCOLE // ESKOLAKO BIZIA

L'école P. Dibarrart compte, cette année, 101 élèves de la Petite Section au CM2 dont 60% d'élèves inscrits en section bilingue.

Afin d'améliorer l'apprentissage et la production en langue basque, l'école propose aux élèves de PS et MS de la section bilingue un projet d'immersion. Autrement dit, les années de PS et MS se font uniquement en langue basque ; puis, à partir de la GS, retour de la parité horaire avec 50% du temps d'apprentissage en français et 50% du temps d'apprentissage en basque.

Ainsi, les familles ont deux possibilités en inscrivant leur enfant :

- La section unilingue où les apprentissages ne se font qu'en français.
- La section bilingue qui commence avec 2 années d'immersion puis retour de la parité horaire à partir de la Grande Section.

A la rentrée prochaine, 2022-2023, l'école ouvre ses portes à tous les enfants nés en 2019 (PS).

Cette année, de nombreux projets sont mis en place malgré les contraintes sanitaires.



Projets artistiques et culturels :

- Les élèves de PS, MS, GS et CP ont découvert l'univers du Cirque avec la Compagnie Oreka.
- Les élèves de CP et les CE1-CE2 unilingues participent au projet national « Ecole et Cinéma ».
- Les CM1-CM2 créent leur tamborrada qu'ils présenteront au festival Hartza Altzoan d'Ustaritz.

Projets sportifs :

Les GS-CP feront du roller au retour des vacances d'hiver. Les élèves de CP, CE1 et CM2 devraient se rendre à la piscine de Landagoyen à Ustaritz.

Du CP au CM2, les élèves ont travaillé sur la course longue et la pelote.

L'école est labellisée Génération 2024. Dans ce cadre-là, la classe de CM1-CM2 sera sensibilisée sur le thème du sport adapté avec les rencontres de la responsable départementale et d'un athlète paralympique. Ce projet devrait être finalisé par une Olympiade.

Lecture : pour développer le goût de la lecture, l'école a mis en place l'action « Le quart d'heure de lecture » une fois par semaine. Les élèves de GS-CP et de CE1-CE2 participent également au concours littéraire national des Incorruptibles.

Projets Santé et citoyenneté :

Du CE1 au CM2, les élèves apprendront à porter secours avec l'aide d'un pompier professionnel.

Les CE1-CE2 prolongent leur projet de l'an passé de sensibilisation au développement durable avec un travail sur le Tri sélectif avec l'aide de Bil Ta Garbi.

P. Dibarrart eskolak, 101 ikasle ditu aurten, ttipien sailetik lehen mailako CM2raino; haietan, %60 sail elebidunean dira.

Euskaraz mintzatzea eta ikastea hobetzeko asmoz, eskolak murgiltze proiektua proposatzen die sail elebiduneko ttipien saileko eta erdiko saileko ikasleei. Beste molde batez erranik, ttipien saileko eta erdiko saileko urteak euskara hutsean egiten dira; gero, handien sailetik goiti, ordutegi parekotasunera itzultzen da, hau da, ikaste denboraren erdia frantsesez eta beste erdia euskaraz egitera.

Gisa horretan, familieek bi aukera dituzte beren haurarentzat:

- sail elebakarra, zeinean ikasketak frantses hutsean egiten baitira.
- sail elebiduna, zeinean lehenbiziko bi urteak murgiltze sisteman egiten baitira eta gero, handien sailetik goiti, ordutegi parekotasunera itzultzen baita.

Ondoko sartzean, 2022-2023 ikasturtean, eskolak 2019. urtean sortu diren haur guziei irekiko dizkie ateak (TS).

Aurten, proiektu anitz eman dira plantan, osasun betebeharrak izanikan ere.

Arte eta kultura proiektuak:

- PS, MS, GS eta CPko ikasleek zirkoaren mundua ezagutu dute Oreka konpainiarekin.
- CP, CE1-CE2ko ikasle elebakarrek «Ecole et Cinéma» nazio mailako proiektuan hartzen dute parte.
- CM1-CM2ko ikasleek beren tanborrada sortzen dute eta Uztaritzeko Hartza Altzoan festibalean aurkeztuko dute.

Kirol proiektuak:

GS-CP sailekoak irristailu saioan arituko dira neguko oporretatik itzultzean.

CP, CE1 eta CM2ko ikasleak Uztaritzeko Landagoien igerilekura joanen dira.

CPTik CM2rainoko ikasleak lasterketa luzean eta pilotan aritu dira.

Eskolak Génération 2024 labelizatua da. Karia horretara, CM1-CM2ko klasea kirol egokituaz sentsibilizatua izanen da, departamenduko arduradunarekin eta atleta paralinpiko batekin topaketak eginez. Proiektu hori olinpiada batekin bururatzekoa da.

Irakurketa: irakurtzearen gustua garatzeko, eskolak «Irakurketako oren laurdena» ekintza plantan eman du, asteen behin. GS-CPko eta CE1-CE2ko ikasleek Incorruptibles delakoen nazio mailako literatura lehiaketan parte hartzen dute.

Osasun eta herritartasun proiektuak:

CE1etik CM2ra, ikasleek sokorria ematen ikasiko dute suhiltzaile profesional baten laguntzarekin.

CE1-CE2koek, garapen iraunkorraz ohartarazteko iazko proiektuaren luzapena landuko dute, sailkapenari buruzko lan batekin Bil Ta Garbi sindikatuak lagundurik.



LE MOT DE L'ASSOCIATION DES PARENTS D'ÉLÈVES

L'association des parents d'élèves (APE) a pour vocation de récolter des fonds à travers l'organisation d'événements ou de ventes, pour aider à financer les sorties pédagogiques et les projets organisés par l'équipe enseignante.

Depuis septembre 2021, les nouveaux membres du bureau sont :

- Léopoldine BRAND, présidente,
- Céline LESCUDÉ, vice-présidente,
- Audrey LEGOUIC, secrétaire,
- Marielle BRANAA, trésorière.

Les opérations organisées depuis la rentrée, notamment la vente de chocolats et de calendriers, ont déjà permis de réaliser de beaux résultats !

D'autres actions sont prévues cette année : une chasse aux œufs, la traditionnelle vente du muguet le 1^{er} mai, la fête de l'école le 21 mai et les fêtes de Jaxou, ainsi qu'une journée à thème médiéval.

Pour que les enfants de l'école puissent continuer de participer à de nombreux projets et sorties, l'APE compte sur la participation des parents, et aussi des habitants du village, pour la réussite des événements à venir !

PRÉSENTATION DE // **HERRIKO LAN TALDEAREN L'ÉQUIPE COMMUNALE AURKEZPENA**



Alexina CAMUS et / eta **Lydia LAMAGDELAINE**, Secrétaires de Mairie / *Herriko Etxeko idazkariak*



Coralie LARRONDO, **Maylis URRUTY**,
Amandine BORDELAIS et / eta **Christelle AROCENA**

Agents d'animation : Accueil de Loisirs Sans
Hébergement (ALSH) - école
*Animazio langileak: Ostatatze Gabeko Aisialdi
Harrera (OGAH-ALSH) - eskola*



Sylvie HAYET et / eta **Olivier BERHO**
Agents techniques / *Agente teknikoak*

Cécilia JAMET
Agent technique et d'animation
Animaziorako eta teknikarako agentea

DEMARCHES D'URBANISME :

Depuis le 1^{er} janvier 2022, la Commune de Jatxou peut recevoir en ligne vos demandes d'autorisation d'urbanisme (CU, PC, DP, PA, ...) de façon simple et rapide. Pour en savoir plus : <https://www.depotpermis.fr>
Bien sûr, vous pouvez toujours venir déposer en Mairie les demandes papier, les délais légaux de traitement restent identiques.

LEGALISATION DE SIGNATURE :

La légalisation d'une signature vous permet de faire authentifier votre propre signature sur des actes sous seing privé, rédigés entre particuliers, sans la présence d'un notaire. Elle peut aussi être demandée par des instances gouvernementales ou des autorités administratives étrangères.

Ne signez pas votre document à l'avance, vous le ferez en Mairie. La présence d'un Officier d'Etat Civil étant nécessaire, pensez à prendre rendez-vous.

DEMANDE DE CARTE NATIONALE D'IDENTITE ET DE PASSEPORT BIOMETRIQUE :

La Mairie de Jatxou ne délivre plus les cartes d'identité et les passeports. Vous devez désormais vous adresser à la Mairie de Cambo-Les-Bains, d'Hasparren, de Saint-Jean-Pied-de-Port mais aussi d'Anglet, de Bayonne, ... Possibilité de faire une pré-demande en ligne sur le site de l'Agence Nationale des Titres Sécurisés (ANTS) : <http://ants.gouv.fr>

Pour tout renseignement complémentaire, le secrétariat de la Mairie se tient à votre disposition :
Tél. : 05.59.93.00.40 / Mail : mairie@jatxou.eu

J'AI 16 ANS, JE PENSE A ME FAIRE RECENSER :

Chaque jeune français à compter de son 16^{ème} anniversaire et jusqu'à la fin du 3^{ème} mois qui suit doit se faire recenser. Vous devez faire cette démarche vous-même, mais si vous êtes mineur, l'un de vos parents peut faire cette démarche à votre place. Pour cela, vous devez aller à la mairie avec votre carte nationale d'identité ou passeport valide, et votre livret de famille à jour. Ce recensement fait, la Mairie vous remet votre attestation de recensement. **Avoir cette attestation est obligatoire pour s'inscrire avant l'âge de 18 ans à un examen (BEP, baccalauréat, ...) ou à un concours administratif en France.** Après votre recensement, vous serez convoqué à la Journée Défense et Citoyenneté (JDC).

A vos 18 ans, vous serez automatiquement inscrit sur la liste électorale de la commune dans laquelle vous aurez été recensé. Pour en savoir plus : <https://www.service-public.fr>

INSCRIPTION SUR LES LISTES ELECTORALES :

Pour pouvoir voter, il est obligatoire d'être inscrit sur une **liste électorale**. Vérifiez que vous êtes bien inscrit sur celle de votre commune avant toute échéance électorale. L'inscription est automatique pour les jeunes qui se sont faits recenser (voir ci-dessus) et pour les personnes devenues françaises après 2018. Si vous vous trouvez dans une autre situation (déménagement, recouvrement de l'exercice du droit de vote, citoyen européen résidant en France...), vous devez faire la démarche de vous inscrire. Vérifications et inscriptions en ligne sur le site : <https://www.service-public.fr>

HIRIGINTZA URRASPIDEAK:

2022ko urtarilaren lehenaz geroztik, Jatsuko herriak linean jaso ditzake zure hirigintza baimen eskariak (Hirigintza Agiria, Eraikitzeo Baimena, Aitzinetikako Deklarazioa, Antolatze Baimena, ...) errexi eta laster. Gehiago jakiteko: <https://www.depotpermis.fr>
Herriko Etxera etor zaitezke, eskariak paperez aurkeztera; tratatuak izateko legezko epeak berdin-berdinak izanen dira.

SINADURA-LEGEZTATZEA:

Sinadura baten legeztatzeak zure sinadura zeurea DELA egiaztatzeo aukera ematen dizu notario presentziarik izan gabe partikularren artean idatzi akta pribatu izenpetuetan. Gobernuaren aldetik ere edota atzerriko administrazio agintaritzek eska diezazukete sinadura legeztatu hori.

Ez ezazula dokumentua aitzinetik sina; herriko Etxean sinatuko duzu. Egoera zibilaren ofiziar bat izan behar denez sinaduraren legeztatzeo, har ezazu aitzinetik hitzordua.

FRANTZIAKO NORTASUN AGIRIA ETA PASAPORTE BIOMETRIKOAREN ESKARIA:

Jatsuko herriko Etxeak ez du gehiago nortasun agiririk ez eta pasaporterik egiten. Hemendik aitzina, Kanboko, Hazparneko edo Donibane Garaziko herriko etxeetara joan behar duzu edota Angelu, Baiona eta abarrekoetara... Aitzin eskaria egin dezakezu ere linean, Titulu Segurtatuen Nazio Agentziaren (Agence Nationale des Titres Sécurisés - ANTS) webgunean: <http://ants.gouv.fr>
Argibide gehiagoren ukaiteko, Herriko EtxeKO idazkaritza zure esku duzu:
Tel.: 05.59.93.00.40 / E-helbidea: mairie@jatxou.eu

16 URTE DITUT ETA ERROLDATU BEHAR DUT:

Frantses gazte bakoitzak, 16 urte bete eta ondoko hirugarren hilabete hondarreraino, errolda dezaten galdegin behar du. Zuhaurk behar duzu urraspide hori egin, baina adingabea baldin bazira, zure buraso batek egin dezake zure orde. Horretarako, Herriko Etxera joan behar duzu indarrean den pasaportearekin edo Frantziako nortasun agiriarekin eta eguneratua den familia liburuxkarekin. Behin erroldatze hori egin eta, Herriko Etxeak zure erroldatze agiria emanen dizu. Agiri hori beharrezkoa zaizu 18 urte gabe nahi baduzu, Frantzian, azterketa batean (Lanbide Ikasketen Brebeta, batxilergoa...) edo administrazio lehiaketa batean izena eman nahi baduzu. Behin errolda eginik, Defentsa eta Herritartasun Jardunaldira (DHJ-JDC) deitua izanen zira.
18 urte beteko dituzunean, erroldatua izan ziren herriko hautesle zerrendan sartua izanen zira. Gehiago jakiteko: <https://www.service-public.fr>

BOZKA ZERRENDETAN IZENA EMATEA:

Bozkatu ahal izateko, zure izena **bozka zerrendan** sartu behar duzu. Egiazta ezazu zure izena herriko zerrendan sartu duzula edozein hauteskunde baino lehen. Izen ematea automatikoa da erroldan eman diren gazteentzat (ikus gorago) eta 2018tik goiti frantses bilakatu direnentzat. Bestelako egoera batean baldin bazira (etxez aldatzea, bozkatzeo eskubidearen berreskuratzea, Frantzian bizi den europar herritarra...), izena emateko urraspidea egin behar duzu. Egiaztapenak eta izen emateak linean ondoko webgune honetan: <https://www.service-public.fr>

Peut-on brûler des déchets verts dans son jardin (feuilles, branches, ...) ?

Non, il est interdit de brûler des déchets verts (végétaux secs ou humides) chez soi, que ce soit à l'air libre ou dans un incinérateur de jardin.

Pour en savoir plus :

<https://www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/F31858>

Nuisances sonores : Travaux et bricolage par des particuliers :

Le règlement sanitaire Départemental prévoit que les travaux de bricolage et de jardinage ne pourront être exécutés que les jours ouvrables de 8h30 à 12h et de 14h30 à 19h30, les samedis de 9h à 12h et de 15h à 19h ; les dimanches et jours fériés de 10h à 12h.

Pour en savoir plus :

<https://www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/F612>

Rappel sur les devoirs d'un propriétaire d'animal domestique :

Nous avons pu constater la présence de chiens et chats errants sur le territoire de la Commune. Cette situation trouble la tranquillité des habitants et menace gravement leur sécurité. Nous vous rappelons que votre responsabilité est engagée en cas de dommages sur des personnes ou des animaux : en vertu du Règlement Sanitaire Départemental, la divagation des animaux errants sur la voie publique est interdite.

Pour en savoir plus :

<https://www.legifrance.gouv.fr/codes/id/LEGISCTA000006167705/>

Rappel sur la détention de types de chiens susceptibles d'être dangereux :

Ces types de chiens sont répartis en deux catégories : chiens d'attaque (première catégorie), chiens de garde et de défense (deuxième catégorie). Le propriétaire ou le détenteur d'un chien de première ou de deuxième catégorie est tenu d'être titulaire d'une attestation d'aptitude sanctionnant une formation portant sur l'éducation et le comportement canins, ainsi que sur la prévention des accidents. Leur détention est subordonnée à la délivrance d'un permis de détention par le maire de la commune où le propriétaire ou le détenteur de l'animal réside. Pour en savoir plus :

<https://www.legifrance.gouv.fr/codes/id/LEGISCTA000006167705/>

Stop crottes :

J'ai un chien, je suis responsable de ses crottes ! Le non-respect de cette obligation est passible d'une amende de 1ère classe. Les espaces publics sont utilisés notamment par les enfants ou pour des activités ; merci de penser aux autres...

Hondakin berdeak (hostoak, adarrak, etab.) baratzean erre ditzakegu?

Ez, debekatua da hondakin berdeak (landare idor edo hezeak) bere etxean erretzea, izan dadila kanpoan ala baratzeak erraustegi batean.

Gehiago jakiteko:

<https://www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/F31858>

Harrabots kalteak: Partikularren obren eta xitxuketen harrabotsak:

Departamenduko osasun araudiaren arabera, xitxuketa eta baratzezaintza lanak, lanegunetan baizik ez dira egiten ahaliko, 08:30etik 12:00etara eta 14:30etik 19:30era, larunbatetan 09:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, eta igande eta besta egunetan 10:00etatik 12:00etara.

Xehetasunak:

<https://www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/F612>

Etzeko animaliak dituzten jabeen betebeharren oroigarria:

Hainbat zakur eta gatu ikusiak izan dira libroan ibilki herriko eremuan gandi. Egoera horrek herritarren lasaitasuna trabatzen du eta segurtasun arazo larriak sortzen ditu. Gogora arazten dizuegu zuen erantzukizuna izanen dela animalia horiek pertsonen edo beste animalia batzuei kalteak eragiten badizkiete: Departamenduko Osasun Araudiaren arabera, debekatua da animaliak bide publikoan gandi ibiltzea.

Informazio gehiago:

<https://www.legifrance.gouv.fr/codes/id/LEGISCTA000006167705/>

Arriskutsuak izan daitezkeen zakur arrazen jabetzari buruzko oroigarria:

Zakur arrazak bi sailetan banatuak dira: eraso zakurrak (lehen saila) eta zaintza eta defentsarako zakurrak (bigarren saila). Lehen edo bigarren saileko zakur baten jabe direnek edo halako zakurrak dituztenek gaitasun ziurtagiri bat ukan behar dute, zakurren heziketa eta jokamoldeari buruzko formakuntza ukan dutela frogatzeko, eta baita istripuen prebentzioari buruzko formakuntza ere. Gisa horretako zakurra ukaiteak bortxatzen du animalia jabea edo animalia duena, bizi den herriaren Herriko etxearen baimena ukaitera. Informazio gehiago:

<https://www.legifrance.gouv.fr/codes/id/LEGISCTA000006167705/>

Zakur kakarik ez:

Zakurra badut, bere kaken erantzule naiz! Betebehar hau ez errespetatzeak lehen mailako isuna ekar diezadake. Haurrek erabiltzen dituzte eremu publikoak, edo beste hainbat aktibitate aurkitzen dira ere; otoi, eskertzen zaitugu besteei pentsatzea...

Bornes de recharge pour véhicules électriques :

Elles sont disponibles sur le parking du trinquet/salle polyvalente.

Renseignements et inscription : www.mobive.fr



Ibilgailu elektrikoen kargaguneak:

Zure esku daude trinkete/erabilera anitzeko gelako aparkalekuan.

Argibideak eta izen ematea: www.mobive.fr

Un défibrillateur automatique est installé dans la Commune.

Accessible à tous en cas d'urgence, il est situé sous l'auvent de la salle polyvalente côté entrée du trinquet.



Desfibrilagailu automatiko bat ezarria izan da Herrian.

Nornahiren esku da larrialdi kasuan eta erabilera anitzeko hegazpean kokatua da, trinketaren sarlekuko aldean.

A la demande de l'Etablissement Français du Sang, Jatxou met régulièrement la salle polyvalente du trinquet à disposition permettant à chacun de donner son sang. Plusieurs journées ont déjà été organisées en 2020 et 2021. D'autres le seront dans les semaines ou mois à venir. Vous serez informés par affichage. Vous pouvez aussi consulter le site pour plus de renseignements ou prise de rendez-vous :

<https://mon-rdv-dondesang.efs.sante.fr/>



Frantziako Odol Erakundeak galdegirik, Jatsu herriak erregulariki uzten du trinketeko erabilera anitzeko gelan, nor nahik odola emateko aukera ukan dezan. Hainbat jardunaldi antolatuak izan dira jadanik 2020. eta 2021. urteetan. Beste batzuk egingen dira heldu diren aste edo hilabeteetan. Afixen bidez emanen dizugu horren berri. Argibide gehiagoren ukaiteko edo hitzordua hartzeko honako webgune honetara jo dezakezu:

<https://mon-rdv-dondesang.efs.sante.fr/>

